



Urnietan legegintzaldi plana abian jartzea erabaki dute

Gobernu taldeak 2015-2019 urteetarako legegintzaldi plana defendatu du, oposizioko alderdien aurkako jarrerarekin.

Aurreko astearren hasieran PSE-EEK eta EH Bilduk legegintzaldi plana kritikatzeko agerraldi bana egin zuten. Asteartean, Udalaren osoko ohiko batzaraldian, EAJ-PNVk zuzentzen duen Gobernu taldeak legegintzaldi plana defendatu zuen. Mikel Pagola alkatea eta Maribel Vaquero jeltzaileen bozeramailea planaren defendatzaileak izan ziren.



EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EEko udal ordezkariak astearteko Udal batzaraldian.

“Lanerako tresna nagusi” bezala defendatu zuen alkateak, urriaren erdialdean oposizioko alderdiei helarazi zieten. Plana udal kudeaketaren, gardentasunaren eta parte hartzearen zeinu

nu bilakatzen dela defendatu zuen: “Udala osatzen duten sail ezberdinetako lehentasunak zehazten dira plan horren bitartez, Udal aurrekontuak gauzatzeko errazteko baliagarria da,

gobernu taldearen ibilbide orrian bihurtzen da eta planaren gauzatze maila neurtzeko aukera ematen die herritarrei eta oposizioko kideei”. Adierazi zutenez, plana gobernu taldeko kideek eta lantsail bakoitzaren buru direnek landu dute. GKT gestio eta kudeaketa taldea bezala ezaguna den batzordea izan da, beraz, planaren egilea.

Astearteko batzaraldian oposizioko alderdiek aurreko asteko argudioei eutsi zieten eta planarekiko aurkako jarraera erakutsi zuten. PSE-EEK aurkako botoa eman zuen, eta EH Bildu aztergai horren bozketan mahaitik altza zen.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Gazte Lokalaren urteurrena

Merienda, irteera, tailerra, sari banaketa ekitaldia... as-teburu oparoa izan zen Gazte Lokalean.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Zanpatuz taldearen irteera

16 lagun, 42 kilometro eta giro bustia BTT irteeran.

[KIROLA, 11. ORRIALDEA]

Leizaran eskubaloit taldea



Leizaran eskubaloit taldeak, 2015-16. denboraldikoak.

[KIROLA, 8-10. ORRIALDEAK]

Andoaingo musika ondarearentzat egun handia Santa Zeziliakoa



Santa Zezilia egunean, musikaren ospakizuna herri ospakizun bilakatu zen.



Dozenaka herrikide igo zen igande eguerdian Basteroko taula gainera.

markeliñe

Kartoi BIRAKA

Munduari itzulua 80 kaxatan

Azaroak 29, igandea

Sarobe AEG.

17:30etan

Sarrera 3 €

Haur antzerkia igandean



Igande honetan arratsaldeko 17:30ean hasita, Markeliñe konpainiaren “Kartoi biraka” haur ikuskizuna. Protagonistek munduari bira emango diote, baina 80 kaxatan.



Ikastaroa Bojoren eskutik

Emakumeen lanean eskarmentu handia duen Pepa Bojo psikoteareutak ikastaroa eskainiko du 2016ko urtariletik martxora, Urnietako ludoteka zaharrean. “Los vinculos afectivos: amar desde la igualdad” izenburupean, asteazkenero bilduko dira arratsaldeko 15:00etik 17:00era. Izen ematea zabalik dago hurrengo abenduaren 4ra bitarte.

FILM LABURRAK

Emakumeenganako tratu txarrak salatzeke egunaren harira, Urnietako udalak egitarau osparoa antolatu du. Datorren abenduaren 11n “Beldur barik” lehiaketako film laburrak ikusi ahal izango dira Gazte informazio bulegoan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

ERAKUSKETA

“Tomaremos las calles” erakusketa Lekaion ikusgai dago, hurrengo abenduaren 11 bitarte.

LEGEINTZALDI PLANA

Udaletxean bertan landutako plangintza

Aurreko agintaldiko agintaldi planari buruzko auto-kritika egin zuen Urnietako alkateak, eta agintaldi honetako plangintzan Udal langileen ekarpena handia-

goa izan zela azpimarratu zuen. Aspaldi ez bezala, aztergaiaren eztabaiban eta bozketan gobernu taldearen eta oposizioaren arteko urruntasuna irudikatu zen.

Astearteko agerraldian **Mikel Pagola** alkateak planaren defentsa egitearekin batera kritiko diren alderdiei erantzuna eman nahi izan zien. Hori uler daiteke, bere adierazpenetan: “Misioa, bisioa, balore nagusiak, helburu estrategikoak eta horietara iristeko ekintzak, kronograma eta diru estimazioa agertzen dira legeintzaldi planean. Gauza serioa dela, beraz, argi geratzen da. Udal politikari eta teknikariek egindako lan baten aurrean gaudela esan genezake, eta horrek balio erantsia ematen dio planari. Aurreko agintaldiko legeintza plana egiteko enkargua kanpo enpresa bati eman zitzaion, oso ambiziosoa eta erreala ez zena frogatu ahal izan duguna. Akats horietatik ikasita, Udal langileek eurek parte hartu dute legeintzaldi plana osatzeko garaian. Dokumentua bere egin dutela esan genezake”.

Urnietan bizitzen diren pertsonen bizitza kalitatea hobetzen jarraitzea, horixe da gobernu taldearen misioa. Eta horretarako Udala gertuko erakunde bihurtu nahi dute. Misioaz gain bisioa ere badutela eta, hauxe da 2020rako irudikatzen duten Urnieta: “Urnietak euskalduna eta munduari irekia izatea nahi dugu, pertsona guztien parte hartzea eta ekintzailetasuna sustatzen dituen, bakea eta bizikidetzat eta berradiskidetzaren kultu-



Legeintzaldi planaren bozketan EH Bildu bere eserlekuetatik altxa zen, protesta ekintza modura. PSE-EEK aurka bozkatu zuen, EAJ-PNVk alde.

ra bultzatzen duena, landa gunea eta ingurugiroa zaintzen dituen eta hiri irisgarriago, jasangarriago eta atseginagoa izatea”.

EKINTZA ZEHATZAK

Udala hiru antolamendu nagusitan osatuta dago: Lurraldea, Herritargoa eta Antolakuntza. Plana hiru ardatz horiengan oinarritu da, eta hiru ardaz horien arabera datozen lau urteetarako helburu estrategikoak ezarri dituzte:

- Herritargoa 16 helburu eta 43 ekintza.
- Lurraldea 6 helburu eta 27 ekintza.
- Antolaketa 5 helburu eta 23 ekintza.

Dokumentua bere osotasunean urnieta.eus webgunean ikusgai jarriko dutela iragarri dute.

IKA-MIKA POLITIKOA

Galde erreguen atalean sozialistek hitza hartu zuten, aurreko astean egindako kritikak berresteko. Sozialistek urriaren erdialdean euren hauteskunde programan azaldutako hainbat proposamen legeintzaldi planean txertatzeko aurkeztu zituztela adierazi zuten, eta kexu agertu ziren gobernu taldeak jaramonik egin ez dielako. Moduekin eta erabilitako denborarekin kritiko agertu ziren eta horregatik aurkako botoa emango zutela iragarri zuen **Consuelo Frutos** PSEko bozeramaileak.

EH Bilduko bozeramaile **Itziar Artolak** bozketari uko egingo ziotela iragarri zuen: “Orain dela hilabete edo plan honen gestio plana aurkeztea eskatu genizuen. Behin baino gehiagotan egin dizuegun eskaera izan da. Prestutasun

“Misioa, bisioa, balore nagusiak, helburu estrategikoak, ekintzak, kronograma eta diru estimazioa agertzen dira legeintzaldi planean”

Mikel Pagola, alkatea

osoa dugu eztabaidatzeko, baina beti ere informazio osoa baldin badugu. Beraz, informazio osoa eduki arte bozketan ez dugula parte hartuko adierazi nahi dugu”. Eta puntu horretan mahaitik altxa eta ez zuten bozketan parte hartu. Hurrengo aztergaietarako euren eserlekuetara itzuli ziren.

Ikusleen artean zirela, EAJ-PNVko bozeramaile **Maribel Vaquerok** hitza hartu zuen oposizioko kideen jokabideari erantzuteko. EH Bilduko jokabidea *antzerkitzat* hartuta, balorazio politikoa egin zuen: “Sozialistek aipatzen dituzten proposamen horietako batzuk plan honen helburu eta ekintza ezberdinetan ikus daitezke. Irisgarritasunean, esaterako, bost ekintza zehatz daude.

Informazioari dagokionez, ez dakit nola eman gehiago. Gustatuko litzaidake beste herrietan guk ematen dugun informazioa ematea, batez ere EH Bilduk gobernatzen duen herrietan”.

Bozketak egin zuten, eta EAJ-PNVren 7 botoekin 2015-2019 urteetarako legeintzaldi plana gehiago osoz onartu zuten.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Dolores Iztueta zendu da



Iztueta, 2013ko edizioan.

86 urterekin, astelehenean hil zen Leizotz auzoko Etxebeste baserrian, eta asteartean egin zen haren aldeko hileta elizkizuna San Martin elizan.

Egunero egunero astoa marmitaz zamatuta, eta esnea partitza herrira jaisten zen emakume baserritar horietakoa izan zen, Andoainen ezagutu zen azkenekotakoa. Ia 50 urte egin zituen lanbide horretan.

2013ko martxoaren zortzian, emakumearen egunarekin batera, andoaindarren omenaldi beroa jaso zuen. Bizitzan borrokalaria eta ekintzaileak izategatik nabarmendu ohi dira zortzi emakume, eta bera izan zen haietako bat. Gustura asko ibili zen kale jiran, ez astoaren lokarria hartuta makina bat urtetan bezala, lekukoarekin baizik. Emakume umila, atsegin eta esker oneko azaldu zen egun hartan ere.

Dolores eta bere astoa tipitapa Andoaingo kaleetan barrena, irudi ahaztezina, hunkigarria geratu da andoaindar ugariren oroimenean. Doloresek Aiurriri eskaini zion elkarriketan (2013/03/08, 353 zenbakia) esan zuenez, herriarrek maiz gogorarazi izan zioten hori: “Gero eta jende gutxiago geratzen da nire ibilerak ezagutu zituena, baina horiek gogoz egiten didate diosala; asko estimatzen nautela sentitzen dut”.

Izugarri estimatu zuen astoa, lau bat bidelagun izan baitzuten hamarkadetan. Egoskorrak zirela eta behin edo beste estropizioren bat egin ziotela adierazi arren, ondo moldatu zela haiekin aitortu zuen. “Asko maite izan dudana animatia izan da, eta ni bizi naitzen artean baserrian asto bat egon behar zuela agindu nuen familian, kapritxo besterik ez bazen ere; Juanito izena du azken urtetan baserrian daukagun astoak”.

400 TXOKOTATIK EUSKARARA ERAKUSKETA DAGOENEO ZABALIK DAGO BASTERON

Emigrazioa aintzat hartzen duen erakusketa

Andoainera migratutakoen inguruko erakusketa zabaldu zuten aurreko ostiralean, Basteron. Garai hartako oroitzapenei eusteko argazkiak, liburuak eta ob-

jektuak bildu dituzte. Erakusketaren atal batean ikus-entzunezko bat eskaintzen dute, zeinean Andoaingo zazpi lekukotza ezberdin azaltzen diren.



Liburuak, argazkiak, objektuak... iragan mendera egindako bidaia da.

Extremadura, Gaztela-Leon, Andaluzia eta beste hainbat txokotatik Andoainera etorritakoen erakusketa inauguratu zuten ostiral arratsaldean, Basteron. “400 txokotatik euskarara” izena du Udaleko Euskara Zerbitzuak Gartxot Arregi eta Iñaki Gozaloren laguntzarekin martxan jarritako egitasmo honek.

50-60. hamarkadan herrira migratu zutenak gogoan hartu dituzte. Erakusketan andoaindarren jatorriak eta zenbatekoak erakusten dituzten informazio panelak, argazki zaharrak, zuhaitz genealogikoak eta eus-

karazko liburuak ikusi daitezke, besteak beste. Horrez gain, txoko batean, migrazioa euren azalean bizitu zutenen testigantzez osatutako dokumental bat dago proiektatuta. Erakusketa Andoainen 400. urtemugaren ekintza sortaren artean dagoenez, urte amaierara arte egongo da bisitagai.

ZAZPI LAGUNEN ESPERIENTZIA

Juan Moyano, Jesús López, Hilda Viña, Pilar Álvarez, Daniel Calvo, Inés Balbín eta Pako Pérez Andoainera etorri ziren bizitza berri baten bila. Beraien bizipenak kamera aurrean kontatu zituzten eta ostira-



Iragan mendeko argazkien bidez, aspaldiko Andoain nolakoa zen ikusi daiteke.

lean izan zuten ikus-entzunezkoak ikusteko aukera. Familiarrakin eta lagunekin batera joan ziren Basterora eta, orotara, 50 lagun inguru bildu ziren erakusketaren inaugurazioaren aurretik. Gustura ikusi zuten dokumentala eta pozarren atara ziren ekitaldi aretotik.

400 TXOKOTATIK, ANDOAINERA

Erakusketaren irekiera ekitaldian kanpotik etorritakoak izan ziren protagonista, eta Ana Jakak hartu zuen hitza lehenengo. Haurra zela euskara jakin ez arren, gerora ikasi eta “Ez zen diruagatik” eleberria argitaratu zuen euskaraz

2014an. “Bizitzan zehar gauza garrantzitsuak esfortzuz lortzen direla ikasi dut. Azken batean, konturatu naiz norberarentzat zerbait garrantzitsua dela esfortzua suposatu duela”, azaldu zuen.

Ondoren, metafora gisa, kanpotik etorritako hainbatek haziak erein zituzten Andoaingo ongarrian. Horren ostean, ikusmina sortu zuen dokumentalaren aurrerapena ikusi zuten bertaratutakoek. Jende ugari bildu zen erakusketa aretoan eta, inaugurazioaren ostean, erakusketako txoko ezberdinak ikusteko aukera izan zuten.

Eraberritze lanak

Ur hoditeria

Aste honetan Udalak ur hoditeria sarean hobekuntza lanak egingo dituela eta, oharra argitaratu du. Leizaur parkean dagoeneko hasita daude lanak, sarearen ehun metro inguru berrikuntza

dituzte. Segidan, Zumea kalean berrikuntza lanak egingo dituzte. Lan horiek egiteko egin beharko diren ur mozketak direla eta, “aldeztik aurretik barkamena eskatu nahi diegu bizilagunei”.

2016ko Udal aurrekontua

Aurrekontua

Gobernu taldeak 2016rako Udal aurrekontu proposamena prest du, eta dagoeneko oposizioko alderdiei helarazi die. Andoaingo Udala 2012az geroztik aurrekontuen luzapenen bitartez

lanean ari da. Gobernu taldeak aztergaia abenduko plenora eraman nahiko luke, eta egun hauetan oposizioko alderdiekin negoziaketeko bilerak deituko dituela iragarri du.

Abenduaren 11n

Bertso afaria

Peña Santakrutz elkartean, datorren abenduaren 11n bertso-afaria antolatuko dute, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso bertsolarien parte hartzearekin. Elkarteko kideek sarrerak salgai dituzte 25

eurotan. Elkartetik adierazi dutenez, “nnorbaitek sarre-raren bat nahiko balu, email bidez idatzi edo elkartetik pasa asteazkenetan iluntzeko 19:00etatik aurrera.

santakrutz@gmail.com

“Gomendatzen dizut” lehiaketan Brosa irabazle



Gazte Informazio Burlegoak antolatzen duen “Gomendatzen dizut” lehiaketan aurtengo irabazlea Unai Brosa izan da, Erromari buruz egindako gomendioarekin. Argazkian, Brosa sari jaso zuen unean.

Kartel lehiaketa:
10-12 urte:
1. Izaro Mikelarena.
2. Aitor Pulpon.
13-15 urte:
1. Maider Arabaolaza.
2. Andoni Alonso.



Kartel lehiaketako eta Gomendatzen dizut lehiaketako irabazleak.

Etxetresna elektrikoek bilketa



Euskadiko First Lego League txapelketan parte hartuko duten Andoaingo La Salle Berrozpeko 12 eta 16 urte bitarteko 8 ikaslek kanpaina abian jarri dute. Ekimena, abenduan Lego txapelketan aurkeztuko duten proiektuaren parte da. Hain zuzen ere, “Trash Trek” deituriko erronkak First Lego Leagueko taldeei hondakinak kudeatzeko era berriak bilatzeko lanean egingo die desafio. Hortaz, proiektu zientifiko honen zeregina hondakin gutxiago

sortzea edo sortzen ditugunak beste era batera tratatzea izango da. Plantxa zahar bat, tonerra aldatzen ez diodan inprimagailua, erabiltzen ez dugun jostailu bat, ez dabilen telebista zaharra... Bilatu etxean, eta balio ez duen tresna elektriko edo elektronikoren bat baduzu, ez bota zaborrontzira, eta ez eraman Garbigunera ere. Oraingo honetan azaroaren 23 astelehena eta 30a bitartean La Salle ikastetxera eraman deza-kezu.

Jarduera ezberdinak burutu zituzten azaroaren erdialdera

Gazte Lokalaren urteurrena



Andoaingo Gazte Lokala ireki zuteneko hamabosgarren urteurrenean, ekitaldi sorta egin

zituzten azaroaren 13tik 15era: talo tailerra, Txuri Ur- dinera irteera, Gazte Asteko

sari banaketa ekitaldia,... Egu- berrietan hitzordu gehiago antolatuko dituzte.



SOS Arrazakeria elkartearen ekimena Andoainera iritsi da

Bizilagunak ekimenaren laugarren edizioa

Azaroaren 22an ospatu da Bizilagunak ekimenaren laugarren edizioa ospatu zen. Igan- de horretan Euskal Herriko hainbat biztanlek euren atea- zabaldu eta bazkaltzera gonbi- datu zituzten bertan jaiotako- ak nahiz lurraldea bizitzeko aukeratu duten pertsonak eta familiak. Andoainen hiru fami- li elkartu dira mahaiaren ingu- ruan, Euskal Herrian jaiotako- ak eta Nigeria sorterri dutenak elkartuz. **SOS Arrazakeria** elkar- teak antolatutako ekimenaren ardatza herri berean bizi diren jatorri ezberdineko pertsonak hurbildu eta ezezaguna zaigu- nari buruzko aurreiritzi eta es- tereotipoak apurtzea da. Bizi- lagunak antolatzen den lauga-



Sorterria ezberdina izateagatik, Andoain dute denek bizitoki.

rreren urte honetan berrehundik gora bazkari egin dira, 428 fami- lik eman dute izena, eta 2.200 pertsona inguruk hartu dute parte.

Datorren urtean ere Bizila-

gunak ekimena antolatzeko eta Andoainen bazkari kopurua handitzeko borondatea dago, honen bidez jatorri ezberdine- tako andoainarrak elkar eza- gutzeko aukera izan dezaten.

Abenduaren hamarrean Ondarreta ikastetxean

Haur masaje ikastaroa

Ane Lasa Irazuegi irakasle, psikomotrizista eta haur masa- jeko hezitzaileak 2014an jaiotako haur eta gurasoentzat ikastaroa eskainiko du Onda- rreta ikastetxean, haur hez- kuntzako eraikinean.

Abenduaren 10ean izango da arratsaldeko 17:30etik 19:00ak arte. Ikastaroa doa- koa da eta taldean gehienez hamar haur onartuko dira. Ize- na emateko azken eguna aben- duaren 4a izango da.

Guraso eta haurren arteko harremana sendotzeko, haurra hobeto ezagutzeko edota hau- rra lasaitzeko teknikak ezagu- tzeko baliagarria izango da.

Izen-ematea: 943 592 756
012779aa@hezkuntza.net

“ANDOAINEN ENTZUNA ETA EGINA” DISKO BIKOITZA AURKEZTEKO SANTA ZEZILIA EMANALDIA

Emanaldi gogoangarria

Bastero jendez lepo zegoen igande eguerdian. Kontzertu bikaina eta sentimenduz beterikoa ikusteko irrikitan zeuden, eta emanalдитik poza adierazten zuen irribarrearekin irten ziren gehienak. Disko

bikoitzaren aurkezpena eta Santa Zeziliako emanaldi berezia, andoaindartsuna indartzen duen egun seinالاتu horietakoa izan zen. Askok eta asko sentsazio hori bizi izanarekin etxeratu ziren.

Kalejira koloretsuarekin hasi ziren. Zumea Plazatik eta Kaletxikitik zutabe bana irten zen, Larramendiabestiaren doinuak erritmoa markatzen zietela. Gora Kaletxiki danborrada-ekin, zazpi elkarteen ordezkariak: bi danbor eta bi kupel jotzaile, eta euren elkarteko bandera zeraman bosgarren laguna. Horiek Zumea plazatik. Kaletxikitik abiatuta, Olagain txistularien taldea beste zazpi elkarrekin batera. Bastero plazara iritsi ziren denak, eta hortan kolorez beteriko ikuskizun polit eta anitza eskaini zuten.

DISKOEN AURKEZPENA

Marta Elvira eta Ixiar Oreja izan ziren aurkezleak. Kontzertuaren lehen zatia elkarrekin kultural eta gastronomikoei loturikoa izan zen. Banan bana igo ziren ohol-tzara, euren ereserkiaren lehen-biziko notak entzuten hasi bezain pronto. Triana eta Hogar Extremeño elkarteko kideak nor bere jantzi tradizionalekin igo ziren. Trianakoei, gainera, dantzarak erakustalditxo eskaini zuten. Joxe Mari Oiartzabalen zuzendaritzapean, doinu guztiak lehen zati horretan Andoaingo Musika eskolako bandak interpretatu zituen.

BIGARREN ZATIA

Andoaingo kantutegiko hamabost abesti biltzen dituen diskoaren txanda heldu zen segidan. Oholtza Andoaingo musikariz eta kantariz bete zen orduan: Musika Eskolako banda, Eskola bereko helduen eta gazteen abesbatzak, Olagain txistulari taldea eta Myriam Ulanga piano jotzailea. Joxe Mari Oiartzabal



Joxe Mari Oiartzabal zuzendaria, kantu baten partitura eskuetan duela.

eta Katrin Iturrালের agindupean, diskoko zenbait pieza jo zituzten: Santa Krutz martxa, Sorabilla, Andoain, Goiburu, San Juan Zortzikoa eta Otso Beltza. Kontzertuari amaiera diztiratsua emateko, Andoaingo ereserkia abestu zuten.

Urki dantza taldeko lau dantzariak ederki moldatu ziren ereserkiaren doinura, eta huraxe izan zen kontzertuko unerik hunkigarriena. Oiartzabalen abestiak andoaingarren bihotzean tokia egin du jada, eta horrela, ikusleen artean batzuk abesten aritu ziren bezala, beste batzuk emozioak gaindituta bezala agertu ziren.

Doinuak entzuleen txalo zaparrada eragin zuen. Oiartzabal zuzendariak eskatuta, ikusleen artean ziren hainbat lagun taula

gainera igo zituen. Ana Carrere alkatea eta Esti Mujika Kultura zinegotziak gain, Basteron entzundako zenbait abestiren egi-leak (hala nola, Miren Mujika eta Junkal Gerrero), egileen senideak, Txitxu Kastro, Joxema Setien edota diskoen ekimenean bultzatzaile izan diren Joxe Ramon Berrondo eta Jesus Ibañez.

Ana Carrere hitza hartu zuen, eta Andoaingo herriaren izenean diskoaren prestaketan hilabeteetan jardun duten pertsona guztiei eskerrak eman zizkien: “Andoain oso herri bizia da eta bere kultura maite du. Horrexegatik, ez daukagu zaltzarik etorkizun oparoa edukiko duela” esanez amaitu zuen mintzaldia. Emanaldi gogoangarria izan zen, luzaz gogoratuko dena.

INKESTA



JULEN FERNANDEZ

Ontza elkarrekin ordezkatzu bost lagun aterara gara kalejira; zazpi elkarrekin bildu gara Kaletxiki, Olagaingo txistulariaren. Badakigu zer den auzoko jale-tan danborradan jotzea, baina berezia izan da gaurkoa; elkarrekin ginen eta ez da batere erraza gertatu denok armonian aritzea. Guztien artean txukun samarreko kale jira egin dugula esango nuke, dena den. Gero pena eman digu Bastero barruko ikusizuna aurrez aurre ikusteko aukerarik ez eduki izana.

Gure elkarrekin ereserkiarekin batera ohol-tzara igotzea tokatu zaigunean, zirrara berezia sentitu dugu elkarrekin bost kideok. Niri behintzat inoiz ez zait gertatu 500 pertsonen aurrean protagonismo hori hartu behar izatea!



MARI JOSE ARKONADA

Kalejira oso alaitua izan da, eta zer esanik ez kontzertua, primerakoa antzokitik indartuta ateratzeko! Jendez gogotsu hartu du parte musikari bezala eta baita ikusle bezala,

eta tartela errepikatu beharreko ekitaldia izan da; horrelakoak ondo datoz andoaindartsuna adierazteko. Gauza bat da abestiak bakarka entzutea, dela kalean, dela elizan dela plazan, eta bestea denak bilduta, gaur eman zaien solemnitarekin entzutea.

Gure osabaren (Pedro Aizpurua) konposizio batek badu tokia diskan (Salve Regina). Bera Valladoliden bizi denez ezin izan du etorri, baina bereziki poztu da bihotzean daramalako bere jaioterria. Oso harro dago diskarekin.



EUGENI LOPEZ DE MUNAIN

Kalejira eta kontzertua, biak ikusi ditut eta dena egin zait polita eta hunkigarria. Kalean ibili direnak gozatu egin dutela iruditu zait; tartean zen nire senarra danborra jotzen, Errekaburu elkarrekin. Elkarrekin horretarako ez daude ohituta danbor kontutan, eta beste batzuk baino motelago ibili dira, baina tira!

Kontzertua berriz, ederra izan da gogotik! Herriko abesti batzuk eza-gunak egin zaizkit, besteak ez, baina denak batera entzuteak horrela, Andoaingo sentimendua daukan edonori, nola ez dizkio, bada, mugituko barruak? Are gehiago, tartean geure auzoko abesti bat (Goiburu) jotzen badizute!





ESKUBALOIA: LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA

Andoaingo eskubaloi jokalaririk



INFANTILAK A
MUTILAK

-Aimar Jimenez
-Oier Zabala
-Mikel Iztueta
-Andoni Usandizaga
-Izaro Garcia

-Mikel Aizpurua
-Unai Gonzalo
-Jose Antonio Gutierrez (E)
-Aitor Gil
-Mikel Lopez
-Eñaut Egafia
-Oihan Hernaez

-Gorka Ramos
-Asier Etxeberria
*Ander Rodriguez
*Asier Iztueta

*Alvaro Jandula (E)



INFANTILAK B
MUTILAK

-Asier Arabaolaza
-Aner Nieto
-Ander Beroz
-Urko Ramos
-Ander Eizagirre

-Iker Uria
-Jokin Belamendia
-Xabier Amiano (E)
-Unai Artano
-Eneko Perez
-Unai Pernas
-Aitor Biurrun

-Odei Iglesias
-Haritz Telletxea

*Alejandro Ugalde (E)

2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016

AIURRI

webgune berria,
esteka berria



.eus

ESKUBALOIA: LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA



INFANTILAK A
NESKAK

-Eneko Bengoetxea (E)
-Maider Jauregi
-Maialen Mendizabal
-Alicia Arruabarrena

-Maider Tapia
-Nahia Iglesias
-Irati Gutierrez
-Zuriñe Gomez
-Onintza Sarasola
-Nahia Sarasola

-Xabier Bravo (E)
-Amaia Arratibel
-Nora Ugartemendia
-Irene Rapun
-Eider Azpillaga
-Nerea Arias

-Nahia Idigoras
-Ekiñe Otaño
-June Miner

*Mikel Arevalo (E)



INFANTILAK B
NESKAK

-Ane Izagirre
-Izaro Mikelarena
-Nagore Alkorta
-Maialen Elizondo

-Aizpea Miner
-Nora Mendizabal
-Mikel Ibarguren (E)
-Leire Gomez
-Maialen Igarategi
-June Korta

-Maddi Elizasu
-Irati Erbiti
-Jone Goiaran

*Itxaro Aizpurua
*Jokin Azpeltia (E)



KADETEAK
MUTILAK

-Javier Rodriguez (E)
-Arkaitz Amenabar
-Jon Ormazabal
-Oier Ochotorena
-Ander Jimenez

-Andoni Avila
-Kenny Williams
-Jon Ibañez
-Beñat Baltasar
-Iker Suarez
-Josean Otaño (E)
-Xabier Galparsoro

-Ibai Gurrutxaga
-Jon Mazkieran
-Andoni Perez
-Jokin Eguzkitza
-Mikel Amenabar
-Danel Mazkieran
-Alex Hernandez

-Xabier Huizi
-Mikel Iriarte

*Jorge Eduardo Mejia



KADETEAK A
NESKAK

-Kepa Letamendi (E)
-Eider Aranburu
-Leire Izagirre
-Miren Imaz
-Uxue Sueskun

-Naiara Sueskun
-Maialen Arocena
-Gurutx Letamendi (E)
-Elixabet Mendizabal
-Maider Callejon
-Eider Goyaran
-Ainhua Urkola

-Alaitz Majano
-Estibaliz Zubeldia
-Oihana Conde
-Viktoria Plotko

*Iosune Perales



KADETEAK B
NESKAK

-Ekaitz Etxeberria (E)
-Yaisa Guijarro (E)
-Sonia Antolinez
-Irene Elizondo

-Naroa Hueso
-Selene Marcos
-Laiene Azkue
-Garazi Vitoria
-Leire Bueno
-Olaia Azurmendi

-Jon Otaño (E)
-Irati Beloki
-Josune Hernandez
-June Mateo
-Adriana Sabino
-Olaia Cillero

-Miriam Lasel
-Elene Askarai
-Aizpea Arruti



JUBENILAK
NESKAK

-Haize Irulegi (E)
-Eider Azpeltia
-Ainhua Lakunza

-Irati Miner
-Ainhua Larraz
-Andrea Rivas
-Alazne Lopez (E)
-Izaskun Aizpurua

-Itsaso Goikoetxea
-Maddi Audicana
-Oihane Iraola

ESKUBALOIA: LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA

Futbol emaitzak

ERREGIONAL OHOREZKOA

11. jardunaldia:

Euskalduna 0-5 Tolosa

Sailkapena:

- | | |
|----------------|----------|
| 1. Tolosa | 25 puntu |
| 2. Anaitasuna | 23 puntu |
| 11. Euskalduna | 14 puntu |

12. jardunaldia:

Zarautz-Euskalduna

Azaroak 28.

PREFERENTE MUTILAK

10. jardunaldia:

Urnieta 2-0 Añorga

Sailkapena:

- | | |
|------------------|----------|
| 1. Trintxerpe | 22 puntu |
| 2. Sanpedrotarra | 22 puntu |
| 3. Urnieta | 21 puntu |

11. jardunaldia:

Baskonia-Urnieta

Azaroak 28.

ERREGIONALA NESKAK

9. jardunaldia:

Touring 0-2 Urnieta

Sailkapena:

- | | |
|--------------|----------|
| 1. Urnieta | 22 puntu |
| 2. Intxaurdi | 16 puntu |
| 3. Allerru | 15 puntu |

10. jardunaldia:

Urnieta-Amara Berri

Azaroak 28.

Ganbara saski taldea



ASTEBURUKO PARTIDAK

GANBARA SenM 93-64 OÑATI

Partida gogorra, azken aldera soilik abantaila hartzea lortu zuen.

OIARSO 24-43 GANBARA JubM

ASKATUAK 29-58 GANBARA InfM

Gaztetxoek partida ona jokatu zuten.

SAILKAPENA

Ganbara senior mutilak:

- | | |
|------------|----|
| 1. Añorga | 14 |
| 2. Ganbara | 14 |

Ganbara jubenil mutilak:

- | | |
|------------|----|
| 1. BKL | 14 |
| 7. Ganbara | 9 |

DATORREN JARDUNALDIA

GANBARA JubM-HERNANI

Larunbata, 28. 12:15.

Senior eta jubenil mailakoak



JUBENILAK

- Hilario Colorado (E)
- Eneko Bengoetxea
- Mikel Biurrun
- Beñat Miera
- Ander Zubeltzu
- Jon Otaño
- Xabier Bravo
- Pablo Ortega
- Josu Arias
- David Davila
- Aitor Bravo (E)
- Iker Pernas
- Asier Askarai
- Asier Murillo
- Arkaitz Azpillaga
- Jon Jauregi
- Jaime Nieto
- *Eneko Soto
- *J.Mikel Arruabarrena
- *Christian Blanco
- *Eñaut Kortaxarena
- *Oscar Garcia



SENIORRAK MUTILAK

- Ekaitz Etxeberria
- Kepa Letamendi
- Javier Rodriguez
- Iñigo Hualde
- Imanol Alaña
- Imanol Otegi
- Iñigo Sarasola (E)
- Aitor Miera
- Aitor Bravo
- Jon Migliaccio
- Alain Yaben
- Aitor Doncel
- Borja De La Iglesia
- *Jon Ander Velasco
- *Imanol Borrero
- *Alvaro Jandula



SENIORRAK NESKAK

- Idoia Colomo (E)
- Irati Abrego
- Olatz Letamendi
- Odile Txueka
- Maddi Arruti
- Eli Paduraru
- Jose Mari Iztueta (E)
- Ainhize Urkola
- Klaudia Gonzalez
- Uxue Botas
- Nerea Makazaga
- Yaisa Guizarro
- Ianire Huizi
- *Oihana Arruti
- *Nerea Alvarioño
- *Tania Pascual



KIROL ALBISTEAK

Emakume pilotarien bilkura



EMAKUME PILOTARIEN TOPAKETA

Andoingo Arrate frontoian bertan, Zizurkil, Tolosa, Azpeitia eta Andoingo 18 bikote bildu ziren eta oso saio arrakastatsua izan zen. Giro ona nagusitu zen. Gazteleku pilota elkarteak aurrerantzean ere horrelako saio gehiago antolatzeko asmoa du.

EHKO TXAPELKETA NAZIONALA

Euskal Herriko hogeitau

onenek parte hartzen dute eta zozketan andoaindarrak eta villabonatarren arteko lehia egokitu zen. Joanekoa Andoainaren jokatu zen, itzulikoa ostiral honetan Villabonan. Emaitzak: 4terdian:

Jon Eskudero (Gazteleku)	18
Eneko Maiz (BeharZana)	9
Eskuz Banaka:	
Julen Aizpuru (Gazteleku)	18
A.Esnaola (BeharZana)	8
Binaka:	

A.Eskudero-U.Etxeberria	12
I.Lizaso-L.ErrekaZana)	22

GIPUZKOAKO FINALAK

Asteburu honetan jokatuko dira finalak eta bertan Gazteleku bi talde sartu ditu. Kadete eskuz banaka mailan, Julen Alberdi Azpeitiaren aurka. Jubenil 1. mailan Mattin Matxain eta Imanol Usandizaga Usurbilen aurka. Zorte on!

Seniorrak igerian heg

Igerilarien Neguko Ligako 2. jardunaldian, senior mailakoak bikain aritu ziren. Lau igerilari aritu ziren eta laurak marka bikainak egitera iritsi ziren.

Mikel Esnal 50 libre proban ikaragarri aritu zen. Bere 23:90 marka onenetik oso gertu izan zen. Antsietateak sor-

tutako akatsak alde batera utzita, azkar aritu zen. Esnalek berak 100 estiloetako marka pertsonala hobetu zuen 1:02:40 denbora eginez.

Haitz Mitxelenak, Iñigo Ibarburuk eta Itsaso Tolosak 400 estiloak probarekin hasi zuten jardunaldia. **Iñigo Ibarburuk**

marka pertsonala egiteaz gain taldeko errekor berria ezarri zuen 4:54:22 denbora eginez. **Itsaso Tolosak** gauza bera egin zuen, taldeko absolutu mailako marka berria lortuz: 5:32:54.

Haitzek marka hobetzerik izan ez bazuen ere, oso txukun aritu zen.

Kadete mailakoek azken fasea bikain hasi dute

URNIETA 41-26 ZARAUTZ

Kadete mutilak. Eskubaloia.

Kadete mutilek primeran hasi dute Gipuzkoako txapelketako amaiera fasea. Partida uneoro kontrolpean eduki zuten eta defentsa on bati esker hasieratik abantaila hartu zuten markagailuan, Imanol Pagolaren geldialdiei eta kontraeraso azkarrei esker. Horrela, zazpi goleko abantailarekin iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatian berdin jokatzen jarraitu zuten, amaierako emaitza argia izanik. Nabarmenezkoa talde guztiak erasoan erakutsi zuen indarra.

URNIETA 21-22 ELGOIBAR

Senior mutilak. Eskubaloia.

Partida erritmo handikoa eta berdindua izan zen. Bi taldeei markagailuan abantaila hartzea ezinezko egin zitzaion, eta defentsak erasoei nagusitu zitzaizkien. Gorritxoek lehenengo zati amaieran elgoibartarrak zuten hiru goleko alde berdintzea lortu zuten, atsedendira 10-10 iritsiz. Bigarren zatia lehenengoaren antzekoa izan zen, berdindua eta defentsa-maila altukoa, urnietarren artean Eneko Urruzola juniorra jaun eta jabe izan zelarik.

Amaierarako zortzi minutu falta zirenean, Urnietak hiru goleko abantaila zuen markagailuan, baina ez zuten denbora kudeatzen asmatu eta Elgoibarrekoek bi jokaldi erabakigarrietan zortea bere alde eduki zuten. Lau segundoren faltan partida berdinduta zegoen, baina etxekoek huts egin zuten eta partida kanpokoen alde 21-22 amaitu zen.

Porrot mingarria izan arren, taldeak bere nortasuna mantenduz gero edozeinen aurka lehiakorra dela erakutsi ahal izan zuen.

Zanpatuzen BTT irteera



Eguraldi gaiztoak epelean goxo-goxo geratzeko gonbitea egiten zuen pasa den larunbatean, baina jendeak erantzun ezin hobea eman zion Zanpatuz mendi elkarteak antolatutako BTT irteerari. 16 lagun elkartu ziren herriko plazan euripean, eta Urdaburu alderantz abiatu. 42 kilometro egin zituzten dene-

ra, blai eginda hasieratik eta jaitsiera teknikoren batean komeriak pasatuz. Eguerdiko 13.30an bueltatu ziren Urnietara, dutxa bero bat hartzeko gogoz. Egin zuen eguraldi petralarekin 16 lagun animatu zirela ikusita, hurrengo irteeran jende gehiago bilduko dela uste dute antolatzaileek.



Bidea zaildu zaie

Urnieta 22-40 Txost

Xabier Amantegi-Mikel Jauregi

Pala motza, senior maila. Partida irabazi behar zuten Gipuzkoako finalaurrekoetara sailkatzeko, baina oraingoan etxekoek kale egin zuten. Zail dute bidea, partidarik galdu gabe jarraitzen

duen R. Sociedad taldea garaitu behar dute eta.

Asteburuko partidak:

Gomazko paleta, seniorrak: Urnieta 3- Real Sociedad
Pala motza, seniorrak: Urnieta 1- Real Sociedad
Larunbata, 28. 10:15.

Areto futbol txapelketa

8. JARDUNALDIA:

Ekhia 0-3 Centro Extremeño
Dad Kutxa 8-1 Drink Team
Ekaitz 7-2 Academia G.F
Bar Egur 0-3 Urnieta Keler
Pausoka 1-5 Hogar Extremeño
Aure Maiton 10-1 Ondarreta

9. JARDUNALDIA:

Keler Ekhia:
Larunbata, 28. 14:30. Allurralde
Drink Team-Pausoka:
Larunbata, 28. 15:30. Allurralde

Ondarreta-Dad Kutxa:

Larunbata, 28. 16:30. Allurralde
Bar Egur-Txalaka:
Larunbata, 28. 17:30. Allurralde
Txalaka-Aure Maiton:
Igandea, 29. 09:15. Allurralde
Centro Extremeño-OZU:
Igandea, 29. 09:45. Arrate
Academia-Bar Egur:
Igandea, 29. 10:45. Arrate
Hogar Extremeño-Ekaitz:
Igandea, 29. 11:45. Arrate

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURUNTZAKO ASTEKARIA

Mamel Larramendi
Kultur Bizkaina



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailerak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ Truman

Larunbata, 28. 19:30, 22:00.
Igandea, 29. 19:30.
Astelehena, 30. 19:30, 22:00.
■ Hotel Transilvania 2
Larunbata, igandea. 17:00.

Urnietan

■ Refugiado

Saio bakarra: 22:00. Sarobe.
Azaroak 27, ostirala.
■ Beldur barik, film laburrak
18:00.
Abenduak 11, ostirala.

Solasaldia

Andoain, Bastero

■ “Hemengo eta hango andoaindarrak”: Ixiar Arin, Teo Calleja, Alejandro Gonzalez eta Jexusmari Olazabal. Aldi bereko interpretazio zerbitzuarekin.
19:00.
Abenduak 2, asteazkena.

Odol-emaileak

Urnietan

■ Anbulategi zaharra. Deitzaileek adierazi dutenez, urteko azken hitzordua izango da. Beraz, agertzeko dei berezia egin dute.
18:30-20:30.
Azaroak 27, ostirala.

Andoain

■ Anbulategia.

18:30-20:30.
Abenduak 10, osteguna.

Farmaziak

Eskualdea

■ Guardiako farmaziak.

Andoain:

Diaz, asteburu osoa.

Urnietan:

Hernaniko Castilla, asteburu osoa.

Eskualdea, gauez:

Etxebeste.
Elkano, 9. Hernani.

Gaztetxea

Andoain

■ Azaroak 27, ostirala

22:30 GauOlinpidak: Finala, sari banaketa.

■ Azaroak 28, larunbata

14:00 Bazkaria.
17:30 Triki poteoa gazte-txetrik herrira.
22:30 Kontzertua: Zarpazo! a Cicatriz! + beste talde bat.

Azaroak 25

Eskualdea

■ Emakumeenganako tratutxarren aurkako nazioarteko egunaren harira, hitzorduak bi herrietan.

Andoain

■ Azaroak 26, osteguna

17:30 Gazte Lokalean “Tratu on jaialdia”, Gazte Lokalaren eta kale hezitzaileen eskutik: Txapa tailerra, mosaikoa, batukada feminista...

■ Azaroak 27, ostirala

19:00 Gazte lokalean autodefentsa ikastaroa, Ismael Mateo

Urnietan

■ Azaroak 27, ostirala

22:00 Saroben Refugiado filma. 4 euro.

■ Azaroak 23-abenduak 11

Lekaion erakusketa: “Tomaremos las calles”.

■ Ikastaroa

Pepa Bojoren eskutik, urtariletik martxora. Izen ematea zabalik, Bertan bulegoan. Informazio gehiago 3. orrialdean.

Bilera

Andoain, Urigain

■ Erraustegia berriro martxan jarriko dutela iragarri ostean, bilera deitu dute.
19:00. Bilera irekia.
Abenduak 2, asteazkena.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

■ “Kartoi biraka – Munduari itzulua 80 kaxatan”, haur antzerkia Markeliñeren eskutik.
17:30. Euskaraz.
Azaroak 29, igandea.

Donostia

■ “Zuria, gure erara” dantza eta antzerki ikuskizuna Antzoki Zaharrean.
19:30. 10 euro.
Abenduak 13, igandea.

Bertso-afaria

Andoain

■ Peña Santakrutz elkartearen Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso. Informazio gehiago 4. orrialdean.
Abenduak 11, ostirala.

Erakusketa

Andoain, Bastero

■ “400 txokotatik Andoainera”. Irudiak, lekukotzak eta ikus-entzunezkoa.
Abenduaren 30era arte.

Musika

Andoain, Bastero

■ “Txistuaren soinuez, herri-zubiak”, Olagain txistulari bandaren emanaldia.
12:30.
Abenduak 20, igandea.

Sariketa

Urnietan, Sarobe

■ Antia literatura lehiaketako sariaren XXI. edizioa. Gazte eta haurren mailakoa.
19:00.
Abenduak 3, osteguna.

Andoain, Bastero

■ “Andoain laburrean” film laburren lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
19:30. Bastero.
Abenduak 3, osteguna.

Postontzia

Andoaingo Eguzki

“Berriro ere mehatxu berri baten itzalpean gaude, Gipuzkoarrak orokorrean eta andoaindarrak bereziki. Politika zaharrak dagoeneko baztertua zegoen errausgailuaren proiektua mahai gainean ipini du. Osasunarentzat eta ingurumenarentzat

eragin ezkorra duen azpiegitura honek zuzenki eragingo dio Andoaingo herriari, 3 km-etara geratzen baita. Andoain eragin kalte handiko eremuan sartzen da. Gaiak piztu duen kezka dela eta bilera ireki bat egingo dugu hurrengo abenduaren 2an, asteazkenarekin, iluntzeko 19:00tan Urigainen”.

Plaza morea jaialdia



Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren inguruan, hanbat ekintza antolatu dituzte Udaleko lantaila ezberdinek. Aurtengo berrikuntza ostegunean iritsiko da, Gazte Lokala morez jantzik baitute gazteek. Ekin-tzei amaiera emateko, ostira-lean autodefentsa ikastaroa

egingo dute Gazte Lokalean, 19:00etan, Ismael Mateoren eskutik.

Azaroak 26, osteguna:

17:30 Txapa tailerra.
18:00 Globo moreen gunea.
18:45 Mosaiko erraldoia.
19:00 Flashmob.
19:30 Batukada feminista.

Urnietako mintzalagunak



Aurreko asteazkenean -azaroak 18- Mintzalagun egitasmoaren aurkezpena egin zuten Urnietan. AEK euskaltegiak azaldu zuenez, “euskararen erabilera sustatzeko ekimena da eta nahi duen orok, euskaraz hitz egitea praktikatu nahi duenak, parte har dezake. Mintzalagun ekimenarekin horixe da, hain zuzen, lortu nahi duguna: euskaraz hitz egiteko aukera gehiago sortzea, euskal-

dunon arteko elkar ezagutza bultzatzea, hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko ohitura sustatzea. Hizkuntzaren kalitatea hobetzea eta erabilera esparru berriak lortzea lortuko dugu horrela”. Eskatzen den konpromisoa aste-aren ordubeteko da. Egitasmoa Hernanialdeko AEK-k eta Urnietako Udalak babes-ten dute. Izena emateko:

Hernaniko AEK
607 592 864 | hernani@aek.org